23.ZK/ABENDUA 2022 • BILBOKO IKASTETXEEN ALDIZKARIA

ELGERA

BERBETAN: **DREYKY DJ** TXURDINAGAKO LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEA

ERREPORTAJEA: **GOGOMOBILA** MONOGRAFIKOA: **SUKALDARITZA** ARTIKULUA: **ANTZERKIA**

3 IKUS ENTZUNEZKOAK
4 ELKARRIZKETA
6 INKESTA
7 LANBIDE HEZIKETA
8 ELKARBIZITZA
10 GOGOMOBIL
12 FABRIKAZIO MEKANIKOA
14 KOMIKIA
16 EUSKARA BIDAIA
18 SUKALDARITZA
20 ATZERRIKO SUKALDARITZA
22 MAKING CITIES
24 ELKARRIZKETA
26 BERTSOAK
27 BITXIKERIAK

AURKIBIDEA

ELGERA

Argitaratzailea: ELGERA LANTALDEA: Deustuko Ikastola IPI, Ellacuria-Zurbaran BHI, Elorrieta-Errekamari LHII, Eskurtze BHI, Harrobia Ikastola LHII, Ibarrekolanda BHI, Ing. Jose Orbegozo HLHI, Kirikiño Ikastola IPI, La Salle Bilbao HLBIP, Rekaldeberri BHI, San Adrian BHI, San Inazio BHI, Txurdinaga LHII, Unamuno BHI, B02ko Hizkuntza Normalizazioko Ulibarri Programa eta PREST! aldizkaria.

Inprimategia: Antza. Ale kopurua: 4.800. Webgunea: www.elgeraldizkaria.wordpress.com

Ikus-entzunezkoei buruzko ikerketa

Ikus-entzunezkoen kontsumoa gora egiten ari da. Igoera horrek jakin mina piztu digu, eta ikerketa bat egitea pentsatu dugu. Ikerketa serioa egiteko datuak behar genituen, eta datuak jasotzeko inkesta bat prestatu dugu Euskara Batzordeko irakasle eta ikasleok. Inkesta horretan azken hiru egunetako kontsumoaz galdetu diegu inkestatuei. Ikus-entzunezkoak lau multzotan sailkatu ditugu; 'streaming' plataformak, telebista, sare sozialak eta bideojokoak, eta lau eremuri buruzko galderak egin ditugu, zer ikusten dugun, zein hizkuntzatan, zenbat eta zein euskarritan. Maila guztietako 255 ikaslek egin dute inkesta; lagina, beraz, handia eta fidagarria da. Datu asko atera ditugu, eta ez dago dena zehatz azaltzerik; datu nagusiak eta gauza adierazgarriak esango ditugu.

Zer ikusten dugu? Zertan ibiltzen gara?

Sare sozialak nagusitu dira, zalantzarik gabe. Ez dago sare sozialik erabiltzen ez duen ikaslerik. Lau nabarmentzen dira; Whatsapp (ikasleen %91k erabili du azken hiru egunetan), Youtube (%78), Tiktok (%76) eta Instagram (%75).

Plataformen kontsumoak gora egin du. Ikasleen %86k ohikotasunez ikusten ditu. Ikusienak Netflix, Amazon, Disney, HBO eta Movistar dira. Ikasleen %71k azken hiru egunetan Netflix ikusi du; plataforma nagusia da, alde handiz. Bigarrena Amazon da, %29rekin; nahiko urrun, eta hirugarrena Disney, %23rekin. Kasu honetan garbi dago beheko mailako ikasleek ikusten dutela gehien kate hori. Gutxi dira streaming plataformarik ikusten ez duten ikasleak, %13a baino ez.

Telebistak, ostera, behera egin du. Ikasleen %27ak ez du telebistarik ikusi azken hiru egunetan. Kate ikusienak Boing (%25), Disney (%22), FDF (%22), Telecinco (%20) eta GolTV dira (%19). ETBko kateak ikasleen %24ak ikusi ditu; ETB2 da nagusi (%11), baina ETB1 hurbil dago (%9). ETB3 gazteenek ikusten dute (%4). Badirudi ohiko telebista nagusien kontua bihurtzen ari dela.Bideojokoen kontua desberdina da. Ikasleen ia erdia (%46) ez da bideojokoetan aritzen, edo oso gutxi. Badira, hala ere, jokozale amorratuak, %16k bi ordu baino gehiago ematen baitu egunean jokoan.

Zein hizkuntzatan aritzen gara?

Zalantzarik ez dago, gaztelania da nagusi. Bi arrazoi daude, askoz gauza gutxiago dago euskaraz, eta gaztelaniazkoetara ohituta gaude. Plataformetan eta bideojokoetan, adibidez, %4 baino ez dugu euskaraz egiten edo ikusten, batez beste, eta telebistan %13. Ingelesaren kontsumoak harritu gaitu. Ingelesezko edukiak asko dira, eta gero eta ingeles maila hobea dugu. Ikus-entzunezkoak ingeles hutsean edo ingelesez eta beste hizkuntza batean ikusteko joera gora ari da egiten, bai plataformetan, bai sare sozialetan eta baita bideojokoetan ere (%18). Ikasle asko gaztelaniaz eta ingelesez aritzen dira edo ikusten dituzte edukiak: plataformetan %27, Youtuben %32 eta Tiktoken %38. Twitchen eta Instagramen ez hainbeste.

Denbora

Garbi dago pantailek gure egunaren zati handi bat hartzen dutela. Adibideak ugariak dira. Plataformetako edukiak ikusten bi ordu baino gehiago ikasleen %26 egoten da, eta sare sozialetan %43. Bi horietan egoten gara gehien.

Lehen esan dugun bezala, telebista tradizionala gero eta gutxiago ikusten dugu; badirudi gauzak nahieran ikusteko ohitura hartu dugula. Bideojokoetan ez dira ikasle asko ibiltzen, baina horietako batzuk jokozale porrokatuak dira. Ikertutako lau ikus-entzunezko multzoetan ematen dugun denbora gehituz gero, emaitza kezkatzekoa da.

Euskarria

Edukiaren araberakoa da erabiltzen dugun gailua. Sakelakoa nagusi da sare sozialetan eta bideojokoetan, inkestatuen %87k eta %60k ikusten baitituzte edukiak sakelakoan, hurrenez hurren. Plataformen kontsumorako nahiago dugu telebista (%65,9), baina sakelakoa gero eta gehiago erabiltzen dugu (%39). Bideojokoetan aritzeko kontsola ere erabiltzen dugu (%40), baina sakelakoa baino gutxiago. Badirudi ordenagailua indarra galtzen ari dela, nahiz eta nahiko erabilia den, oraindik ere, plataformetako edukietarako (%31) eta bideojokoetarako (%35).

EGILEAK: Ibai Herrero, Maialen Montoya, Uxue Goirigolzarri eta Olatz Cuerdo.

"Gogor lan eginez nire helburuak betetzen ari naiz"

Alex de Andrés ikasle ezaguna dugu Txurdinagako LHIIn arrazoi bigatik: batetik, zentroan Merkataritza Jarduerak erdi mailako zikloa eta Salmenta eta Merkataritza Espazioen Kudeaketako goi zikloa ikasi ondoren Marketin eta Publizitateko goi mailako zikloa ikasten ari delako; eta beste alde batetik, zentroko hainbat ekintzetan parte hartu duelako bai DJ lanetan, bai bideo grabaketak egiten.

Zelakoak izan dira zure azken urteak, hemen ikasle moduan, DJ moduan...?

Txurdinagara duela 5 urte heldu nintzen eta egia esan oso pozik nago. Irakasleek beti laguntzen naute ikasketekin, ikasleak beti izan dira ikaskide onak eta ikasketa zentroa oso ondo dago, ordenagailuak, ikasketa metodoa, jantokia, komunak eta garbitasuna.

Nire azken urteak ikasle moduan oso onak izan dira egia esanda, pozik nago ikasitakoarekin, erdi-mailan apuntatu nintzenean ez nekien gustatuko zitzaidan ala ez, baina lehenengo egunetan zer ikasiko nuen ikusita, oso pozik jarri nintzen gustuko nuena ikasiko nuela konturatu nintzelako. Beste alde batetik, DJ bezala azken urte honetan goraka egin dut, hori bai, atzetik lan asko dago. DJ mundua zoragarria da baina bideratzen ikasi behar da, gaua oso leku basatia izan ahal da, eta nik, zorionez, beti izan dut oso argi dena: ez dut alkoholik edaten ezta erretzen.

Nolakoa izan da pandemia garaia?
Erasmusa egingo nuen baina bertan behera gelditu zen, aurten aukera hori berreskuratu nahi dut. Pandemiari esker diseinuaren munduan eta merkataritza munduan sormena hazi egin da, eta Txurdinagan ikasitakoari esker, DJarekin lotutako guztia garatu ahal izan nuen pandemiaren hilabeteetan.

Zergatik aukeratu zenuen Merkataritzako ikasketak egitea?
Beti ibili naiz negoziatzen gauza ezberdinekin, txikitan txartelekin, gerora Light diskorako harreman publikoko lanarekin. Gogoratzen dut baten lurrindegi batera sartu nintzela eta Rafa Nadalen kolonia baten prezioa negoziatzen saiatu nintzela saltzailearekin, eta prezioa jaistea lortu ondoren, koloniarik ez nuela nahi erabaki nuen...

Zergatik Txurdinagan?
Nire asmoa hasieran kirolarekin zerikusia zuen gradu bat egitea zen baina ez nuen sarbiderik lortu, orduan amak Txurdinagan onartua izan nintzela esan zidan, eta egia esan, ondo iruditu zitzaidan gradu biak gustatzen zitzaizkidalako. Bost urte daramatzat zentroan, beraz zentroak zerbait badu, gehien bat irakasleak dira: irakasgaia ezagutzen duten irakasleak, ikasleen egoerak ulertzen dituztenak eta irakasle izatea edota irakastea gustatzen zaienak. Klasea ematerakoan hori nabaritu egiten da eta, egia esanda, bikaina da. Baina zentroa oso ona da zentzu guztietan.

Nondik datorkizu DJa izatearen irrika?
Abeslari bati argazkiak egiteko kontratatu ninduten. Horretan nenbilela DJ baten beharra zutenez proposamena egin zidaten eta, diskoteketan arreta pizten zidan zerbait zenez, onartu nuen. Estudio batean nire kabuz

ikasten hasi nintzen hiruzpalau ordu egunero hainbat hilabetez, eta ondoren, nire kabuz jotzen. Gehien gustatzen zaidana herri eta auzoetako jaialdietan jotzea da, giro bikaina egoten da. Bestalde, inoiz ez zait gustatu gurasoei dirua eskatzea, 16 urte bete nituenetik nabil lanean, beti pentsatu izan baitut dudanarekin aurrera egin behar nuela, eta horrela egin dut. Irabaziak inbertitu ditut eta momentu honetan daukadan ekipoarekin ikuskizun bi batera egiteko ahalmena lortu dut. Eta egia esan, esatea txarto iruditu arren, oso harro nago neure buruaz eta neure lorpenez. Gogor lan eginez nire helburuak betetzen ari naiz, eta hazi baino ez naiz egin: 2021 Grezian jo nuen, Lohan diskotekan!

Zein izan da zure unerik gogokoena?
Ibilbidean zehar hainbat lekutan eta hainbat musika mota jo ditut. Jende askok galdetzen dit ea zein izan den nire momenturik edo ekitaldirik gogokoena, baina ezin dut bat aukeratu hainbat ditudalako: Medina de Pomarrekoa, San Adriánekoa, Miribillakoa, Altamirakoa, Moskotarrekoa, Mausategikoa etab. Baina baten bat aukeratzekotan, bi esango nituzke: alde batetik Medina de Pomarrekoa, 2019 eta 2022 urteetan. Maite dudan herrian, jende guztia nire musika dantzatzen eta gozatzen ikusteak ez du preziorik. Eta beste alde batetik Moskotarraken egindako ekitaldia. Jendeak azaldutako interesa eta beraiengandik jasotako esker mezuak pozez bete ninduten, oso momentu bereziak izan ziren.

Afizio hori ikasketekin lotu ahalko zenukeela uste duzu?
Ikasketek neure enpresa sortzera bultzatu naute, 20 urterekin enpresa berri bat sortzen ari bainaiz, DREYKY DJ, eta martxan jartzeko irrikan nago. Esan beharra dago, aurten ere ostegun guztietan jotzen dudala eta, noski, ostiraletan klasea dut baina gauza biak aurrera eramaten saiatzen naiz, kostatzen da baina gustatzen zaizuna egiten duzunean ez da hainbeste kostatzen.

Zer egiteko edo izateko ideia daukazu etorkizunean?
Nire etorkizunerako plana momentuz enpresa berria, DREYKY DJ, martxan jartzea da.
Horretarako, zentroko 'Urratsbat' proiektuaren arduradunaren laguntza jasotzen ari naiz. Lan egin nahi dut baina argi daukat ez dudala nahi 8 orduko lanaldia, astelehenetik ostiralera oinarrizko soldata baten truke. Nire asmoa nire lanaren ardura nirea izatea da. Badakit nire asmoak handiak direla, baina nahiago dut nire helburuak betetzea beste norbaitenak baino.

Tik tok erabiltzailea al zara? Zeintzuk dira bilatzen dituzun gaiak? Zergatik? Euskaraz daudenak ikusten dituzu?

UXUE

Bai, ni Tik tok erabiltzailea naiz.
Modan jarri zenetik erabiltzen dut, egia da, ez dudala gai zehatz bat bilatzen, Tik token sartzen naizenean edozein gai ateratzen zaidalako; adibidez, bideoak lagunekin, udako laburpenak, gustuko duzun telesailaren laburpena eta antzeko kontuak. Euskaraz hainbat Tik tok kontu daude batez ere euskal abeslariarenak, EITB1eko telesailen bat... Nik batez ere ikusten ditudan bideoak gazteleraz daude, egia da, gehien ateratzen diren bideoak gazteleraz daudela baina noizean behin ere ikusten ditut euskaraz.

JOSUNE

Ni Tik token erabiltzailea naiz.
Normalean artea, literatura eta animearekin lotutako bideoak bilatzen ditut, daukadan denbora libreran egin ahal ditudan ideia edo proiektu berrien bila. Gainera, gutxitan bada ere, euskarekin lotura duten bideoak ere ikusten ditut, konkretuki euskal musikarekin zerikusia dutenak. Alabaina, onartu behar dut bideo gehienak gaztelaniaz eta ingelesez entzuten ditudala.

GABRIEL

Ez naiz tik tok erabiltzailea.
Horren ondorioz, ez daukat esperientzia asko gai honetan. Noski, ez dut gairik erabiltzen. Baina ikusten ditudan pertsonek koreografiako gaiak erabiltzen dituzte normalean. Ez dut ulertzen zergatik izango den. Horrez gain, dakidanez normalean gaiak ez daude euskaraz. Tik Tok-ek hizkuntza nagusiak erabiltzen ditu. Gehienak gaztelaniaz daude. Batzuk ingelesez ere badaude.

Bilbon Kiroleko Oinarrizko Lanbide Heziketa egiteko aukera dago!

EGILEAK: Iraide Alonso, Julen eta Oier Fernandez, Jon Aritz Galvez, Hodei Garcia, Mikel Iglesias, Yasin Laaraba, Unax Perez, Unax Puccini, Uxue Rios, Anartz Sacristan, Oier Saez, Isaac Sanchez, Ruben Santin eta Pablo Zabala

2022-2023 ikasturtean Harrobia Ikastolak heziketa-ziklo berria estreinatu du: Kirol Instalazioen Irisgarritasuna eta Kontserbazioari buruzko lanbide-prestakuntza. Hortaz, formazio hau lehen aldiz jasoko dugun ikasleok azalduko dizuegu gure zikloa zertan datzan eta zer jarduera motak egiten ditugun bertan.

Aurtengo irailean gure bizitzako etapa berri bati hasiera eman genion. Aurreko ikasketak atzean utzita, Oinarrizko Lanbide Heziketaren munduan murgildu ginen bete-betean. Ikasturte hasierako egunekin batera, lehenengo erronkak ere aurkeztu ziren, besteak beste, ikastetxe berria ezagutzea eta ikaskideekin harremanak sortzea. Erronka horien aurrean oso baliagarriak izan ziren aurrera eramandako aurkezpen dinamikak eta orientatzailearekin ikastolako eraikinetik egindako bisita.

Aurkezpenak alde batera utziz, lanari ekin genion. Ikastolan lantzen ditugun irakasgaiak edozein motatako kirol instalazioetan mantentze- eta harrera- lanetan lan egin ahal izateko bideratuta daude. Hori dela eta, kirol instalazio motak eta horiek bete behar dituzten diseinu eta irisgarritasun baldintzak landu ditugu. Baita horietan egiten diren jarduerak ere. Horrekin batera, instalazio mota horien mantenuaren funtsak ikasteaz gain (esaterako, elektrizitatearen oinarriak), bezero-arretarako teknikak eta protokoloak ere landu ditugu.

Bestalde, ikasgelan barneratutako ezagutzak errealitatean nola aplikatzen diren ikusteko, hainbat instalaziotara bisitak egitea aurreikusita dago. Egin dugun lehenengo bisitan Fadurako kiroldegira hurbildu gara.

Bisita horretan instalazioetako langileekin hitz egin ez ezik, haien egunerokotasuna nolakoa den ikusteko aukera izan genuen.

Oraingoz, espero dugu gure ziklo berria ezagutzera eman izana. Bitartean, gure ikasketek zer erronka berri eskaintzen dizkiguten ikusteko irrikaz gaude.

ESKURTZE BHI MARTXAN

DBHko ikasleak irailaren 22an, osteguna, inguruko mendiak ezagutzera irten ziren elkarbizitzako dinamikan parte hartzeko

EGILEAK: Natalia Arza, Leyre Robredo, Jone Mendia, Jon Fuente eta Nora Bakkali

1. MAILA ARNOTEGI MENDIAN

Lehenengo mailakoak 8:50ean atera ziren institututik Arnotegira joateko, 1.Ako gehienak joan ziren eta 1.B taldean bakarrik lau falta izan ziren. Irakasle asko joan ziren, adibidez: musika irakaslea, geografiakoa...

Arnotegira iritsi zirenean istripu txiki batzuk gertatu ziren: ikasle bat txirrista batetik jausi zen, beste bat ere parkean "ipurdiz" erori zen. Bitxiki, kanpin denda bat zegoen bertan, eta barruan norbait zegoen. Honek pilota kendu zien ikasle bihurriei. 14:17an bueltatu ziren Arnotegitik, oso nekatuta. 1.Ako ikasleek ondo pasatu zuten. Hala ere, hurrengo baterako ez dute halakorik errepikatu nahi. 1.Bkoak, ordea, errepikatzeko asmoa erakutsi dute, ondo pasatu zuten eta.

2. MAILA ARRAIZ MENDIAN

2. mailako ikasleak 8:50ean atera ziren Eskurtzetik Arraizera igotzeko eta 14:17an bueltatu ziren. Arraizera igotzeko Errekaldetik pasatu ziren eta jaisteko Masustegitik eta Kobetasetik , hain zuzen ere. Arraizen kanpin denda bat ikusi zuten eta barruan bi pertsona lo zeuden. Arraroa izan zen, bai horixe, kanpin-denda bat ikustea, hor ez baitago kanpinik. Handik ingurutik piknik mahaiak daude eta bertan hamaiketakoa jan zuten. Ondoren jolas batzuk egin zituzten. Inguruko larreetan behi asko zeuden eta ikasle batzuk janari apur bat ematen saiatu ziren. Behiak ez ziren pozik jarri eta mutil baten atzetik joan ziren. Hori gertatu ondoren, argazki bat atera zuten behiarekin eta denak pozik geratu ziren. Arraizetik jaitsi bitartean neska batek orkatila bihurritu zuen, baina dena ezusteko batean geratu zen ez zelako gauza handirik izan. Hurrengo urtean haien asmoa da beste mendi batera igotzea eta gure inguruko mendi gehiago ezagutzea.

3. MAILA BOLINTXU MENDIAN

Irteera honen helburua Bolintxuko ur-jauzira iristea zen. Ur-jauzi ederra da, kolore argiko ur putzu bat dauka eta landare berdez inguratuta dago gure klima euritsuaren ondorioz. Orain, Bizkaiko Foru Aldundiak eremu hori ixtea erabaki du Supersur izeneko autobide bat egiteko. Autobide horrek joaneko bi errei izango ditu, eta beste bi itzulerakoak. Baina horrek ez zigun galarazi gure ikaskideekin goiz eder bat izatea. Hamaiketakoa jan genuen Ollargan parkean, La Peña-tik gertu. Ordubete igaro ondoren, eguzkitan eguraldi onarekin, auzora itzuli ginen Miribilla-tik gora. Bost orduko irteera izan zen, gutxi gorabehera. Ibilian-ibilian ez ziren hainbeste izan; zati bat hamaiketakorako izan baitzen, gainera noizbehinka geldialdi txikiak egiten genituen joandako ikasle guztiok talde handian biltzeko. Gehienek diote berriro egingo luketela irteera bat; proposamen berarekin baina hain menditsua ez den toki lauago batera, denbora eman ahal izateko joko kooperatiboetan jolasten, gure arteko elkarbizitza sustatzeko. Leku ederretara joatea ere gustuko dugu, batez ere interesa piztuko diguten tokiak ezagutzea. Oraingo honetan deigarriena Ollargango ur-jauzia izan da. Zoritxarrez, ezin izan genuen ikusi. Hirugarren mailako ikasleek esan digute institututik kanpo ere mendi-irteerak egiten dituztela batzuetan, familiarekin; besteetan, lagunekin.

4. MAILA PAGASARRI MENDIAN

Nabari da nortzuk diren institutuko nagusiak, Pagasarrira joaten gehien ibili zutenak izan baitziren, 14 kilometroko bidea egin zuten! Gailurrera iritsi zirenean, tortilla pintxo bana jan zuten, musika entzun eta hitz egiten zuten bitartean. Bi klaseak elkarrekin joan ziren. Bikain etorri zitzaien ikaskideen artean sozializatzeko eta ikasle berriak ikastetxean hobeto integratzeko. Laugarren mailako ikasleek esan digute mendira joateko irteerak egiten dituztela, institututik kanpo. Batzuk igandeetan joaten dira familiarekin egoteko. Beste ikasle batzuk, berriz, asteburu eguzkitsuetako goizak aprobetxatzen dituzte lagunekin plan ezberdin bat izateko.

GOGOMOBIL

EGILEA: Mikel Ganboa

Greenpower Iberia elkarteak, gazteoi aukera ematen digu kotxe elektriko bat diseinatzeko, eraikitzeko eta harekin lehiatzeko. Elkarte honen helburua gazteoi zientziarekiko zaletasuna sortzea da, eta aldi berean, ingeniaritzara hurbildu eta honi buruz oinarri eta jakintza batzuk barneratu gure kotxea diseinatu eta sortzeko. Horrela, urtean zehar lasterketa desberdinetan parte ahal izango dugu. Deustuko Ikastolak proiektu honetan parte hartzeko aukera izan du hainbat urtetan ikastolan Teknologia irakasten egon den pertsona bati esker: Anabel Iturrioz. Aupa Anabel!

Duela urte asko, Deustuko Ikastolaren orubean, autoentzako piezak egiten zituen fabrika bat zegoen. Kotxe hau Gogomobila deitzen zen, eta piezak hemen egin ostean, Mungian zegoen beste fabrika batera bidaltzen zituzten, bertan kotxeei piezak jarri ahal izateko. Horregatik, gure kotxeari "Gogomobil" izena jarri genion, auto-fabrika hau oroimenean gordetzeko. Aurreko urtean, finantzaketa Deustuko hainbat enpresetatik eta dendetatik lortu egin genuen, adibidez: Aerofer, Cerveceria Gabiña, Bicicletas Bizkaia... Aurten oraindik ez ditugu iragarleak lortu eta bilatu beharko ditugu.

Orain arte, eskola publiko bakarra izan gara parte hartzen proiektu honetan, baina aurten eskola publiko gehiago sartuko dira. Aurreko urteko Gogomobil taldeak, hainbat lasterketetan parte hartu zuen, esaterako, San Mamesen, Trapagaranen, Torrelavegan eta Los Arcosen (Nafarroa). Iaz, lasterketetara joateko, furgoneta bat behar izan genuen eta ondorioz, Aerofer enpresan lan egiten duen taldekide baten izekoak utzi zigun. Aupa Rosi!

Aurten, proiektuan, sei ikasle bakarrik gaude. Iaz taldekide gehiago ziren, momentuz talde moduan oso pozik gaude. Bisita bat egin dugu Bridgestone enpresara, gurpilak nola egiten diren ikastera. Green Power proiektua finantziatzen dutelako gonbidatu gintuzten bertara.

Eguna fabrika bisitatzen eman genuen eta eguerdian autoarekin fabrika inguruan buelta batzuk eman genituen bertako jendeari erakutsi ahal izateko.

Aurten Galdakaoko Udalak lasterketa bat antolatu du Bridgestone-n laguntzarekin, eta Gogomobilak parte hartu du. Galdakaora goizeko bederatzietan heldu ginen eta ordu biak arte egon ginen bertan. Lasterketan beste bost ikastetxek parte hartu zuten eta guk lasterketa irabazi genuen. Aupa gu!

Gure kotxea hobetu ahal izateko, iragarleak bilatu behar ditugu, haien laguntzaren truke guk haien enpresaren izena gure automobilean iragarriko dugu pegatina baten bitartez. Hauek bilatu behar ditugu materiala lortu ahal izateko, oraindik eskularruak eta kaskoa falta zaigu, eta dendetara joan beharko gara hauei buruz galdetzen. Kotxeak oraindik hobekuntza batzuk behar ditu, karrozeria pixka bat aldatu behar dugu hurrengo urtera begira, txasisa eta kotxearen aurreko partea hobetu egin behar da baita ere. Horrez gain, motorra lasterketetan asko berotu egiten da eta modu bat bilatu behar dugu motorra aireztatu ahal izateko kotxea martxan dagoen bitartean. Esperientzia hau asko gustatzen zaigu, zientzia eta ingeniaritzari buruz jakinduria asko jasoko dugula pentsatzen dugulako, eta taldeko lana baita ere indartzen dugulako.

FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA ELORRIETA ERREKAMARI LHII-N

Elorrieta-Errekamari LHII-ko goi mailako Fabrikazio Mekanikoko bi ikaslerekin bildu gara: Iker Garcia eta Yeray Berrizbeitia. Aurten, bere bigarren urtea da goi mailako diseinuko zikloan, beraien agenda estuan leku bat egin digute ikasketen aurrean euren aurreikuspenei buruz hitz egiteko. Beste erronka batzuen artean, Yeray eta Iker Euskelec-eko lehiaketan parte-hartzaile nagusienetarikoak izan dira. Aurrerago azalduko digute zer den lehiaketa hau!

Formakuntza dualari esker, ikasketa prozesua beste enpresa batzuekin bateratzen duzue. Nolakoa da zuen egunerokoa?

Yeray: Hala da. Nire kasuan, nire egunerokoa bi zatitan banatzen da, zentroan nagoen denbora eta dualean nagoena. Egia da bi giro desberdin direla, enpresan zentroan baino praktikoagoa da eta nire ustez modu honetan gehiago ikasten da.

Iker: Ni ere formakuntza dualean nago, astelehenetik ostegunera 4 ordu ematen ditut ikastetxean eta gero beste 4 ordu lanean. Ostiralean 6 ordu etortzen naiz eskolara.

Zein da zuen ibilbide akademikoa?

Y: Unibertsitatean Sormen eta Sorkuntza Gradua amaitu nuen 2020an, Diseinu Grafikoko minorra eginez Arte Ederretako fakultatean. Aurretiaz Arte Ederretako Batxilergoa egin nuen.

I: Batxilergoa amaitzen saiatu nintzen baina ez zitzaidan gustatu. Gero Soldadura eta Galdaragintzako erdi mailako zikloan sartu nintzen. Eta orain hemen nago fabrikazio mekanikoko diseinuan.

Zergaitik aukeratu zenuten Goi Mailako ziklo hau, Fabrikazio Mekanikoko Diseinua?

Y: Diseinuaren munduarekin loturiko gauzak txikitatik gustuko izan ditut eta unibertsitatea amaitu ostean lagun batzuekin hitz egiten nengoenean Goi Mailako ziklo hau egiteko aukera agertu zen eta gustatu zitzaidan eta horretan hastea pentsatu nuen.

I: Hasiera batean arkitektura egin nahi nuen, baina ez nintzen ondo moldatzen batxilergoarekin, beraz ziklo hau aukeratu nuen.

Zer da Euskelec lehiaketa eta zelan parte hartu duzue?

Y: Euskelec goi mailako zentroen arteko auto elektrikoen lehiaketa bat da, zentro bakoitzak auto bat diseinatu eta fabrikatu behar du arau batzuen barruan. Gure kasuan aurreko edizioan aurkeztutako autoa frogatu eta gero, auto berri bat diseinatzen hasi ginen hutsetik, txasisa, karrozeria, atal mekanikoak eta abar….

I: Lehiaketa bat da, F1-aren antzekoa. Auto bat diseinatu eta fabrikatu behar genuen, lasterketa batera eramateko.

Elorrieta – Errekamari LHII-an formakuntza erronken bidez bideratzen da, zein izango litzateke zuek egindako erronkarik ikusgarriena ("Euskelec" lehiaketaz gain).

Y: Euskelec alde batera utziz, esango nuke egin genuen zilindro neumatiko baten diseinua izan dela ikusgarriena. Erronka honen helburua zilindro neumatiko funtzional bat diseinatzea eta fabrikatzea zen eta oso interesgarria izan zen denontzako.

I: Zilindro neumatiko bat diseinatu eta fabrikatu genuenean, egin dugun erronka guztietatik gustukoena izan dut eta ondo gauzatu genuelako erronka.

Nola ikusten dituzue lan aukerak?

Y: Lan aukera handiak ikusten ditut, hainbat lagun ditut sektore honetan eta beti esaten dute lan zama handia daukatela eta beti lanez gainezka daudela.

I: Ona bazara lana lortuko duzu, gremio guztietan diseinatzaileak beharrezkoak direlako.

Zer iruditzen zaizue Formakuntza dualean parte hartzea? Lanak ikasketak… zaila izan daiteke...

Y: Esango nuke eredu duala ziklo honek daukan atalik onena dela, klasean teorikoki ikasitako guztia modu praktikoan landu dezakegulako enpresa batean eta honela kontzeptuak hobeto finkatzen dira.

I: Gure zikloak daukan garrantsitzuena da, lana eta esperientzia lortzeko batez ere. Guk enpresan orduak ematearen ondorioz, gero lan aukera gehiago izango ditugula uste dugu.

IKUSI BIDEOA!

Egilea: Enara Iriarte



Egilea: Amara de la Varga



Egilea: Alba Etxenagusia



Egilea: Irati Lazkano

HIEROGLIFIKOAK

ZENBAT DENBORA BEHAR DUZU LANA AMAITZEKO?

NOR JOAN DA MENDIRA?



HIZKI-ZOPA. BILA ITZAZU 10 FRUTA!

V	X	A	S	A	G	A	R	R	A	J	B	A	U	A	K
A	U	J	N	B	N	M	A	E	F	J	I	Y	L	K	J
I	Y	N	M	N	E	R	T	D	E	O	A	N	G	Ñ	A
Z	S	A	P	B	H	A	E	L	T	G	O	K	R	L	S
E	X	R	V	S	N	M	Q	O	X	A	N	I	R	K	T
R	U	A	Z	A	A	P	K	E	H	M	A	Z	O	P	A
E	B	L	R	D	U	O	J	J	A	N	T	M	K	I	H
G	V	G	A	E	L	S	D	L	B	S	A	N	D	I	A
P	R	R	U	E	G	M	P	M	N	A	L	T	D	P	M
Q	I	Z	M	W	T	O	Ñ	H	G	G	P	G	R	Ñ	F
A	B	M	C	W	M	E	L	O	I	A	H	R	A	K	L

EUSKARA BIDAIA

Ibarrekolanda BHIko bigarren batxilergoko ikasle talde bat euskara bidaia egitera joan ginen, 2022ko urriaren 26tik 28ra. Baina... zer da euskara bidaia? Euskara bidaia hiru egunetan zehar 24 orduz euskaraz mintzatzeko aukera paregabea da! Euskal Herriko beste herri batzuetako euskaldunen egoera, kultura, ohiturak... ezagutzeko balio duena.

Asteazkenean, goiz-goizean gitarrak, lo sakuak eta gogo guztia bilduta hasi zen geure bidaia. Lehenengo geldialdia Irunen (Gipuzkoa) egin genuen. Bertan Irungo Harrera Sareako lagunekin egon ginen, eta migratzaileen egoera eta gaur egungo Irungo herriaren eta Iparraldearen arteko mugari buruzko hitzaldia eman ziguten. Taldeko partaide batek azaldu zigun zein baldintzetan pasatzen diren migratzaileak Irunetik Hendaiara, Frantzian bizitza berri bat hasteko asmoz. Konturatu ginen kanpotarrek bizitzarekiko duten pertzepzioa gurearen aldean desberdina dela. Ondoren, autobusa hartu eta jarraian Bizi elkarteko kideekin bildu ginen Baionan. Gizarte arazoen aurka egiten du elkarte horrek. Batez ere, aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan parte hartzen dute, adibidez, hainbat herritan bidegorriak jartzea lortu zuten. Gero, bazkaldu bitartean, Baiona ezagutu genuen eta 17:00ak inguruan Zizpa Gaztetxera hurbildu ginen. Han, Eneko Gorrik, Iparraldeko Euskal Departamentuko euskara teknikariak, gure hizkuntzak Euskal Herriko Iparraldean duen presentzia azaldu zigun, hezkuntza arloan sakonduz. Ba al zenekiten hemen ez bezala, Iparraldean euskara ez dela hizkuntza ofiziala eta ez dagoela eskola euskaldun publikorik? Gainera, Baionako biztanleriaren %3a soilik aritzen da euskaraz! Beste bi partaide gaztek lokalaren historia eta bertan egiten diren jarduerak azaldu zizkiguten. Baionari agur esan ostean, Baigorriko aterpetxera abiatu ginen, afaldu eta dantzan, jolasean eta abesten aritu ginen oheratzeko ordua heldu zen arte. Ostegun goizean, gosaldu eta Donibane Garazira joateko autobusa hartu genuen. Bertan, Euskal Herriko Laborantza Ganbara ezagutu genuen. Iparraldea ez dago Hegoaldea bezain industrializatuta; horren ordez, baserriek eta laborantza sistema tradizionalek dute garrantzi handia. Jatorrizko nekazaritza eta abeltzaintzaren aldeko apustua egiten dute, hango gizartean asko baloratzen baitituzte baserritarrek landutako elikagai ekologikoak.

Ondoren, Irulegiko Irratira joan ginen nola lan egiten duten ikasteko. Haien ordutegia, jarduerak eta musika azaldu zizkiguten. Zuzenean ematen ari ziren estudio nagusian ere sartu ginen!

Teknologia aurrerapenei esker, azkeneko hamarkadetan musika biltzeko eta irratian emateko era berriak erakutsi zizkiguten.

Ingurutik bazkaltzeko zerbait hartu ostean, Donibane-Garazi (Nafarroa beherako hiriburua) bisitatzera joan ginen, eta oso hiri ederra dela baieztatu ahal izan genuen, baina oso arraroa egin zitzaigun hiria baino, herri txiki bat dirudien tokia hiriburua izatea! Kontua da jende gehiena herri txikietan eta baserrietan bizi dela. Arratsaldean aterpetxera joan ginen eta hango gela batean, "AXUT!" antzerki elkarteko kidea den Manexek interpretazio ikastaro labur bat eman zigun. Libertimenduari buruz, jarrerari buruz eta antzerki herrikoiari buruz egin zigun berba, eta amaitzeko guztiok parte hartzeko ariketak egin genituen. Egia esan, oso klase interesgarria izan zen! Gainera, gehienok arte eszeniko batxilergokoak garenez, aukera ezin hobea izan genuen. Hurrengo goizean, ur botilak eta eguzkitako krema motxilan sartu eta mendira abiatu ginen. Birritan bidez okertu ostean, bide zuzena hartzea lortu genuen. Amaierako zatiak, mendia baino, rokodromoa zirudien! Gainera, ez genuen eguzkitako kremaren beharrik izan, itzelezko haize-bolada zegoelako zuhaitzik ez zegoen eremuetan, baina denok -edo gehienok- osorik igotzea lortu genuen. Mendira joan ostean, Frantzia utzi eta Nafarroara abiatu ginen, Amaiurrera, hain zuzen. Lehenengo, Amaiur Arkeologia Zentroan egon ginen eta gero, Amaiurreko Monolitoa gaztelua ikustera joan ginen, baina asko harritu ginen gaztelurik ez zegoela konturatu ginenean! Gerra garaian eraitsitsko gazteluaren arrastoak baino ez ziren geratzen. Baina hala eta guztiz ere, oso interesgarria izan zen geure historiari buruz pixka bat gehiago jakitea. Gero bazkaldu genuen, eta etxera abiatu ginen. Esan dezakegu euskara bidaia barrez, emozioz eta abenturaz betetako bidaia izan dela. Esperientzia izugarria izan da, dudarik gabe errepikatuko genukeena. Interesgarriena izan da euskara erabiltzera ohituta ez dauden askok itzelezko aukera izan dutela euskaraz mintzatzeko, eta beste horrenbestek, ikasi gabe, euskara maila hobetu dutela, hori baita hizkuntza bat ikasteko ariketarik onena: hitz egitea.

ORBEGOZOKO TXEFAK

Kaixo, Elgera irakurleok! Aurten eskolan tailer berria izango dugu, sukaldaritzakoa, hain zuzen ere. Eta gogoz estreinatu dugu. Gure lehenengo errezeta taloa egitea izan da. Taloa betetzeko Nutela erabiliko dugu, eskolan denek ezin dutelako txerrikirik jan.

OSAGAIAK (4 lagunentzat)

-Arto irina (350g)

-Gatza

-Ur epela (250ml.)

-Nutela

(Osagaien kantitatea gutxi-gorabeherakoa da)

Lehenengo, ontzi batean, arto-irina, ur epela eta gatza nahasten dira. Masa hori loditzeko 7-8 minutuz nahasten eman behar dugu. **Ondoren,** masa zabaldu behar da forma emateko. **Gero,** masa handi horretatik borobil txikiagoak ateratzen dira.

Ostean, borobil horiek mahai gainean jarri eta kolpe txikiak ematen hasiko gara. Kostatzen da neurri fineko eta forma biribileko taloa sortzea. Guri nahiko loditxoak atera zaizkigu. **Hori eta gero,** plantxan jarri 3 minutu alde bakoitzetik Nutelaz bete eta ahora! Lehenengo aldia izateko ez da hain txarra atera! **Hurrengo** egunean suhiltzaileak etorri ziren eskolara, sukaldeko kableetatik kea eta txispak ateratzen zirelako. Gure taloa izango ote zen erruduna?

ATZERRIKO SUKALDARITZA TAILERRA

COIXINHAS DE FRANGO

Egilea: Eider Murillo

Coixinhas de frango edo hemen kroketak deiturikoak, erraztasun handiz sukaldatu daitezke eta zapore pikantea duen errezeta sinplea da. Brasilgo plater tipikoa izan arren, mundutik hedatu ere egin da.

OSAGAIAK

500 g irin,
500 ml oilasko salda,
500 ml esne, 75 g gurina,
Gatza
Bestalde, zaporea emango dion betegarria eskuratzeko:
Oilasko bularki 1
1/2 tipula
Baratxuri ale 1
2 goilarakada tomate saltsa
Gatza eta piperra
Tabasco saltsa
Oliba olio birjina estra

ZELAN EGIN?

Hasteko betegarria egiteko, oilasko-paparra egosi behar da, hozten utzi eta ondoren harietan desegin. Jarraian, artagin batean, tipula eta baratxuria oso txikituta erre egin behar dira, tomatea eta tabasko tanta batzuk erantsiz. Ondoren, oilasko egosiaren bularki-hariak gehitu eta ondo nahasi. Hozten den bitartean, koixinen masa egiten hasten gara. Masa egiteko modu ugari daude.Batzuek oilasko salda eta esnea nahasten dituzte, bestalde, beste batzuek urarekin bakarrik egiten dute, zuek aukeratu dezakezue.Irinari dagokionez, batzuek koixinhak egiten dituzte irinaren parte bat patata egosiekin edo beste tuberkulu batzuekin ordezkatuz, mandiokarekin,esaterako. Gure masa egiteko, lapiko batean esnea, salda, gurina eta gatz pittin bat jartzen dira, eta irakiten hasten denean, irina gehitzen da,osagaiak integratuz, beraz dena mugitu behar da. Ore bat lortzen denean, lapikotik atera eta mahaian oratzen da, zilindro forma ematen zaion masa leun bat lortu arte, eta, ondoren, zatitan mozten da. Zati horietako bakoitzarekin enpanadillazko obleen antzeko zirkuluak egingo ditugu horiek betetzeko.Masa-zirkulu bat jarriko dugu esku-ahurrean, betegarri koilarakada bat erantsiko diogu eta ertzak goiko aldera tolestuz itxiko dugu. Itxi ondoren,orea lisatu eta gainaldean biratuko dugu forma konikoa emateko. Azkenik, arrautza eta ogi birrindutik pasa eta frijitu, gorritu arte.

VENEZUELAKO AREPAK

Egilea: Edurne Conde

ZELAN EGIN?

Lehenengo, nahastu ura, gatza eta irina katilu batean. Orea edo masa eskuekin landu, hau da, oretu. Ondoren, itxaron 20 minutu orea hazi arte. Orearen 100gramoko zati txikiak hartu eta biribildu. Gero zapaldu nahi den lodiera hartu arte. Zartagina su motelean jarri eta olio pixka batekin oreak 6-8 minutuz txigortu. Zartaginean ere urdaiazpikoa txigortu. Azkenik, labana batez zabaldu arepak alde batetik eta sartu gaztaia eta urdaiazpikoa. Eta On egin!

OSAGAIAK

Kikara bat ur bero
Gatz pixka bat
Arto-irin kikara bat
Lau mozzarela gazta zati
Lau urdaiazpiko zati
Olioa

DENBORA: *Ordu bete*
JATORRIA: *Venezuela*

SUSHIA

Jatorria: Japonia
Denbora: Ordu eta erdi

Egilea: Irantzu Caballero

OSAGAIAK

Hegalabur arraina
Ahuakate bat
Pepinoa
Surimi-makilatxoak
Gatza, 30 g
Koilarakada bat azukre
2 koilakarada arroz ozpin
2 nori alga xafla
Katilu bat ur
Kikara bat arroz japoniarra

TRESNAK: *Esterilla, abanikoa eta egurrezko erretilua edo taula*

ZELAN EGIN?

Arroza egosia: Lehenik, garbitu ondo arroza. Ondoren, utzi 30 minutuz ur hotzetan beratzen. Xukatu eta lapiko batean urarekin jarri eta estali. Su bizian jarri irakin arte eta utzi hor bi minutuz. Orduan, su txikian jarri 10 minutuz. Amaitzeko, utzi 5 minutuz egoten.

Sushi-Zua: Eltze batean ozpina eta azukrea gatzarekin nahastu eta mugitu ondo disolbatu arte.

A**rroza Sushi-Zuarekin:** Arroza hartu eta egurrezko erretilu batean bota astiro eta kontu handiz. Mugitzen ari garela, abanikoarekin haizea bota arroza ondo egiteko. Sushi-zua edo gozagarri hotza bota nahi dugun puntua lortu arte.

Makiak egin: Esterillaren laguntzaz makiak egin, nori alga beherantza jarriz, arroza gainean eta bertan ahuakatea, pepinoa, surimi-makilatxoak eta arraina gehituz. Presionatu gogor, enrollatu eta listo!

KALABAZIN MOUSSAKA

Jatorria: Grezia

Egilea: Lucia Calle

OSAGAIAK

2 kalabazin ertain
2 patata ertain
400 g txahal-haragi xehatu.
4 koilarakada soda tomate saltsa
Tipula erdia
2 baratxuri ale
Gatza, piperbeltza
Intxaur muskatua
Oliba-olio birjina estra
Gratinatzeko gazta birrindua
Katilu bat bexamel saltsa

ZELAN EGIN?

Haragia prestatzen hasiko zara zure betegarrirako. Tipula eta baratxuria txikituta zipriztindu egingo duzu. Erregosita daudenean, haragia gehitu eta sardexkarekin txikituko duzu salteatzen den bitartean. Zipriztindu, intxaur muskatua jarri eta tomatea gehituko diozu. Saltsa pixka bat murriztu eta haragia eginda dagoenean, sutik aldenduko duzu. Patatak zuritu eta xerra finetan ebaki behar dituzu. Gauza bera egin kalabazinekin. Bereiz frijitu behar dituzu, su motelean asko gorritu gabe. Sukaldeko paper gainean xukatu egingo dituzu. Labe-iturri batean, oinarrian patatak jarri eta haragiarekin eta kalabazin xerrekin estali. Ondoren, bexamelarekin eta gazta birrinduarekin estali. Azkenik, grilean gratinatuko duzu guztia gainazala gorritu arte.

VICHYSOISSE

Jatorria: Frantzia
Denbora: 50 minutu

Egilea: Ariadna Pardo

OSAGAIAK

Gurina 60g
Porrua (zati zuria) 500g
Patata 500g
Oilasko zopa 1L
Gatza eta piperra zure gustura
Sukaldatzeko krema likidoa 200mL

ZELAN EGIN?

Lehenengo, porruak garbitu behar dira. Porruaren lehen geruza kentzen dugu eta bakarrik geratu behar gara porruaren zati zuriarekin. Ondoren, porruak mozten ditugu. Patatak zuritu eta moztu egiten ditugu ere. Gero, porruak egosi behar dira gurinarekin bigundu arte. Jarraian, patatak eta oilasko zopa gehitzen ditugu. Sua igo eta utzi 30 minutuz egosten. Geroago, guztia birrintzen dugu eta krema likidoa gehitzen dugu. Azkenik, iragazten dugu, hozten utzi eta jateko prest egongo da.

ESFORTZUAREKIN ETA LANAREKIN LORTUTAKO IZUGARRIZKO SARIA

Gure zazpi kideko taldeak gernu-inkontinentziari buruzko proiektuan egindako lan guztiaren ondorioz, Making Cities lehiaketan parte hartzeko aukera izan genuen, originaltasun eta sormen saria irabaziz. Horregatik, Madrilerako bidai batez gozatu ahal izan genuen doan. Bertan "La Vela", Vallecas auzoa eta hainbat erakusketa bisitatu genituen.

Egileak: Leire Pérez eta Iker García

Guztiaren hasiera iazko ikasturte hasieran dago, orduan hasi ginen proiektu hau martxan jartzen, eta proiektuaren lehen zertzeladak agertu ziren. Lehenik, hainbat gairen artean eztabaidatu genuen. Azkenean, gernu-inkontinentziarena aukeratu genuen, batez ere adinekoei egunerokoan eragiten dizkieten arazoak aztertuta. Beste askoren artean gai hori aukeratu genuen une horretan identifikatuta sentitzen ginelako, denok genituelako aitona-amonak, eta horiek jada sufritzen ez bazuten, pairatzeko gertu egon zitezkeelako. Orduan, konponbide eraginkor bat bilatzea erabaki genuen. Planteatu genuen irtenbidea pegatina bat sortzea izan zen. Ordenagailuz diseinatu genuen, tabernetako ateetan itsasteko, eta Udalak dirulaguntza bat emango zien tabernei pertsona hauei kontsumitu gabe euren lokaletako komunak erabiltzen uzteagatik. Gainera, komunek garbi egon behar zuten eta dirulaguntza lortu ahal izateko ezaugarri berezi batzuk bete behar zituzten. Horrela, beharra zuten pertsonek ez zuten ezer kontsumitu behar komunera joateko.

"Making Cities 2030" Deustuko Unibertsitateak BBVArekin lankidetzan duen ekimena da, eta Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) eta Hiri Garapen Iraunkorraren kontzeptua zabaltzea du helburu. Lehiaketa honetan hainbat ikastetxetako irakaslek eta ikaslek parte hartzen dute eta Deustuko Unibertsitatean egiten da. Gurekin batera beste 154 ikaslek euren proiektuak aurkeztu zituzten. Egun hartan jende pila zegoen, eta gure standetik pasatzen ziren gure proiektua entzutera. Oso urduri geunden, pertsona haien artean epaileak infiltratuta zeudelako. Beste 27 talde zeuden, beraz, euren standetatik ere pasatu egin ginen euren proiektuak entzuteko. Azkenean, sari banaketan gure proiektuaren izena entzun

genuen, eta hori ustekabea izan zen, baina ilusio handiz, eszenatokira igo ginen saria jasotzera. Garaikurraz gain Madrilerako bidai bat ere irabazi genuen. Bertan, hotel batean ostatu eman ziguten, garraioa eta antolatutako jarduerak doan eskaini zizkiguten.

Beraz, irailean autobus txiki batean Deustuko unibertsitateko irakasle batek lagunduta Madrilera joan ginen, baita Errioxako beste irabazle batzuk ere. Madrilera joateko bidaia bost ordu baino gehiago izan ziren, eta iritsi ginenean oso nekatuta geunden. Heldu ginenean, BBVAren "La Vela" izeneko egoitzan bisita bat izan genuen. Honek bidaia luze horren ondorioz galdutako energia itzuli zigun. Leku horrek hiri bat zirudien, eraikin ezberdinak zituen, izenak zituzten kaleak, kafetegiak... izugarria zen! Gainera, hango langileek askari bat prestatu ziguten. Jasangarriagoak diren BBVA-ren ideiak aurkeztu zizkiguten. Gero, Vallecaseko gizarte-ekintza bat ezagutzera joan ginen; oso harrigarria iruditu zitzaigun, hor jende asko baitzegoen auzoko egoiliarren mesedetan lanean. Ondoren, jendez gainezka zegoen Madril bisitatu genuen eta oso polita izan zen. Hurrengo egunean, benetan bisita interesgarria egin genuen Madriletik eta hango historia ere ikasi genuen. Ostean, "Matadero" deritzon instalazio batera joan ginen zenbait erakusketatara; bat metabertsoaren ingurukoa zen, beste bat Klimt erakusketa zen - murgiltze esperientzia bat, Gustav Klimt-en lanaren barruan sentitzekoa-. Oso harrigarria izan zen. Arratsaldea libre geneukan, beraz, paseo bat ematera joan baino lehen, taldeko pertsona batzuk hoteleko igerilekura joan ginen eta beste batzuk erosketak egitera. Azken egunean, "El Retiro" parketik ibili ginen naturan oinarritutako irtenbide hiritarra ezagutzera. Hori amaitutakoan, Bilbora itzultzeko autobusa hartu genuen, pena handiz, gure bidaia amaierara heldu zelako.





Jolastokiaren eraldaketa proiektua

Unitxer Zenón Rekaldeberri BHIko Heziketa Fisikoko irakaslea da eta era berean, gure institutuan apainketa, pintore eta konponketa lanak egiten ditu. Batxilergoko lehenengo mailako ikasleek egin diote elkarrizketa.

Zertan inspiratu zinen proiektua aurrera eramateko?
Orain dela 3 urte sortu zen gure egitasmoa. Marta de Blas Errasti arkitektoa master bukaerako lana egiten ari zen institutuan 2020-21 ikasturtean. Bere proiektua patioak emakumeentzako moldatzean oinarritzen zen, besteak beste. Hori ardatz hartuta gure proiektua martxan jarri genuen.

Zuk bakarrik antolatu duzu dena?
Ez, talde lana izan da. Institutuan argi geneukan patioa guztiona dela eta guztion lana zela berritze eta moldaketa proiektua. Ez genuen "Todo para el pueblo pero sin el pueblo" bat antolatu nahi, Euskal Herrian egiten den auzolana baino. Zuzendaritza taldearen, irakasleen eta nola ez, ikasleen eta guztion izerdiarekin aurrera eramaten ari gara.

Orduan, zenbat pertsonek hartu dute parte proiektuan?
Ez dugu eragiketa egin baina asko izan gara. Institutuko ikasle, irakasle, eta langileez gain, kanpoko enpresek ere lan espezializatuak jarri dituzte behar izan ditugunean: eserlekuak, kalistenia egiteko barrak, saskibaloiko saskien taulak, mahai teniseko mahaiak, etab. Bestalde, gu ibili gara hesiak margozten, belardian sasiak kentzen, arboletan adarrak mozten, enborrentzako zuloak egiten eta guztia atontzen.

Goiko patioa bakarrik erreformatuko duzu? Zerbait daukazu pentsatuta beste leku batzuetarako?
Gure asmoa poliki-poliki ahal dugun guztia aldatzea eta egokitzea da, beti ere beharrizanen arabera. Ez ditugu aldaketak helburu zehatz bat izan gabe egin nahi.

Eginda dagoenaz aparte, aurten (2022-23 ikasturtean) rokodromo horizontal txiki bat eta konposta egiteko kutxara doan bidexka egiteko asmoa daukagu. Proiektuak baditugu baina aurrera eraman behar ditugu.

Futbol zelaia bada, zergatik margoztu dituzu urtaroak lurrean?
Iaz, plastika eta ikus entzunezko ikasgaian eguzki-erlojua egin zuten futbol zelaiaren erdiko zirkuluan eta horregatik daude urtaroak lurrean margoztua. Patioan kirolak, jolasak eta jokoak egiteaz gain beste jakintzagaiek ere bere lekua izan dezaten nahi dugu.

Zergatik ipini zenituen ikur feministak?
Jolastokiaren eraldaketa proiektuaren helburuen artean neska eta emakumeak ahalduntzea eta patioan bere leku propioa izatea ere bada. Ikur horiek espazio bat ematen diete eta beraiek aukeratutakoak izan dira eta nola ez, haiek margoztutakoak.

Egileak: Batxilergoko 1. maila

Nondik dator kolore horiek erabiltzeko ideia?
Ba ez da aurretik pentsatutako ideia izan. Lana egin ahala erabakiak hartzen joan gara. Ikasleek gogokoen zituzten koloreak erabili dira: morea oso gustukoa eta aldarrikapenaren esanguragatik; horia zeukan bizitasunagatik; eta berdea naturarekin duen zerikusiagatik.

Nola sentitu zara?
Oso gustura!! Pozik eta ardura handiarekin. Kontuan izan behar da ikasleek oso gustuko dutela patioa eta denbora nahikotxo pasatzen dutela bertan eta horren ondorioz berea balitz bezala sentitzen dutela, beraz kontu handiz ibili behar gara gauzak bikain egiteko.

Zergatik aukeratu zaituzte proiektu hau egiteko?
Heziketa Fisikoko irakasleok denbora pila bat pasatzen dugu patioan eta horrenbestez beti egoten gara, ni behintzat, bertako indargune eta xehetasun guztiak behatzen eta ikasleen ikuspuntuak egunero entzuten. Zuzendaritza taldeak konfiantza erakutsi zuen nire lan egiteko eran eta antolakuntza ereduan.

Beste institutu batera joango bazina berdina egingo zenuke?
Ba ez da galdera erraza!! Testuingurua aztertu beharko nuke, baina egia esan gogotsu nabil proiektuarekin eta lan egiteko libre sentitu dut nire burua. Zergatik ez? Egingo nuke eta Rekaldeberrin jasotako eskarmentua bertan txertatuko nuke.

Gustatu zaizu nola geratu den?
Bai eta ez! Oraindik lan asko dugu egiteko eta ikasturtea hasi baino ez dugu egin. Seguru aldaketak, proiektu berriak eta etorkizunari begira hamaika gauza sortuko direla. Gogoz nabil eta ikasleak ere prest daude guztiok batera lanean jarraitzeko.

2022 BERTSOZ BERTSO

Europan gerra hasi da
Ukrania gogora
hainbat pertsona hilda
heldu da tristura

Milaka familia
handik etor dira
pake, laguntza eske
hona eta hara.

Azken hilabetetan
prezioak gora
argindarra ogia
olio ikara

Merketxo erosteko
dendaz denda gara
baina azken batean
aurrezkiak behera

Kezkatuta gabiltza
ikusi egoera
odola eta gerra
mina bihotzera.

Noiz helduko ote da
pakea gurera
elkartasuna eta
amaitu da gerra

ESKANEATU QR KODEA ETA ENTZUN KIRIKIÑO IKASTOLAKO IKASLEEN BERTSOA!

BITXIKERIAK

IRAKURKETA GELA *Laura Piedrahita - DBH 1*
Irakurketa gela Batxilergoko gelen alboan dago. Hainbat liburu daude, euskaraz zein erderaz, eta bat aukeratzen duzunean, parper batean idatzi behar duzu hurrengo informazioa: zure izena, klasea, eguna eta liburuaren izenburua. Behin hori eginda, liburua irakurtzen hasi ahal zara, baina, noski, non irakurri hautatu ostean. Horretarako, puff edo lurreko kuxinen artean aukeratu beharko duzu eta puff-a nahi izanez gero... heldu arin!

PACOREN ETXEA - *DBH 1C taldea*
Paco San Adrian institutuko atezaina izan zen hainbat urtetan. Bere etxea institutuaren barruan zegoen eta hor bere familiarekin bizi zen. Pasa den ikasturtean jubilatu zen eta bere etxea hutsik zegoenez, institutuari ideia berezi bat bururatu zitzaion: Pacoren etxea gela egonkor bilakatzea, hau da, laguntza behar duten pertsonentzako txoko bat. Guk "Kopro" saioetan normalean haiekin jolasten dugu eta oso dibertigarria da, adibidez, sokasaltora, armiarmara, gomara, etab. Azkar nekatzen direnez, ez gara beti egoten saio osoan eta bi asterik behin egoten gara haiekin. Benetan oso ondo pasatzen dugula elkarrekin!

MARIVI BILBAO - *Ana Otermin - Batx 1G*
Ba al zenekiten denok ezagutzen dugun Marivi Bilbao aktore famatua San Adrian institutuko irakaslea izan zela?? Bai, Aquí no hay quien viva-ko Marisa Benito-k eta La que se avecina-ko Izaskun Sagastumek antzerkia eman zuen gure institutu honetan! Eskola ordutegitik kanpo izan arren, bere saioak jendez gainezka egon ziren, itzela omen zen!

TXOKO LILA - *DC Taldea*
Berdintasuna bultzatu eta sustatzeko San Adrian insitutuko ikasleok Txoko Lila sortu dugu. Hau gure Berdintasunaren txokoa da eta, ikus dezakezuenez, kortxoa eta postontzia ditugu. Lehenengo honetan, egunerokotasuneko berririk garrantzitsuenak ageri dira, parte-hartzeko dauden lehiaketekin batera; eta postontzia iradokizunak zein kezkak luzatzeko gunea bihurtu dugu. Oso arrakastatsua da!

ELGERA 23